

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2013ko abenduaren 12ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan egindako tailerra, 18:30etik 20:00etara

Agenda 21eko Foroaren 2013ko azkeneko tailerra...

... lagunartean

Eta zuekin egin dugu; konpromisoa, borondatea, iritzi kritikoa, elkarrekin eraikitzeko gogoia adierazi duen lagunartean.

Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Floren Gutiérrez • Montse Vallejo • Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Juan Pedro Agirre • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Rafael Gomez (Buskabaso) • Juan Karlos Agirre • Ane Mendiñeta (Legazpiko Udaleko arkitektoa) • Inma Hernandez (Legazpiko Udaleko iraunkortasun saileko eta Agenda 21eko teknikaria) • Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea enpresako dinamizatzailak.



... eta gai interesgarria mahai gainean

Gaur hemen, urte hasieran mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko definitu genituen lehentasunezko jardueretan zentratu gara. Eta jarduera bakoitza nola

dagoen ezagutzera emateaz gain, Santikuz kalea –“Serenako” aldapa– berritzeko egin den proposamena aztertu dugu.

Orain ikusiko dugu!

Berri onekin hasiko gara!

1. Birziklaturako bidalitako hondakinen portzentajeak gora egin du nabarmen

Hori da Sasieta Mankomunitateak emandako datuek adierazten dutena:

- Legazpin birziklaturako bidalitako hondakinen portzentajea % 28 izatetik –2013ko otsailean– % 75 izatera pasatu da 2013ko azaroan¹.
- Gainera, bai atez ate eta bai bosgarren edukiontzian –edukiontzi marroia– bildu den organikoaren kalitatea oso ona da.



Kepa Urzelai alkateak kontu hori dela eta luzatu digun mezua oso argia da:

- Legazpiarrok ondo ari gara baina oraindik badago herritarren % 20 hondakinak modu egokian bereizten ez dituenak.
- Beraz, asko hobetu da baina oraindik gehiago hobe daiteke; helburua % 80ko portzentajea lortzea izango da.



Azkenik, Foroan hondakinen gaiari buruz jaso ditugun bi proposamen gehitzen ditugu:

- Edurne Huesak **Legazpiko Kultur Etxean Zero Zabor taldeak antolatu duen “Hondakinak nola murriztu” izeneko erakusketa** bisitatzerako animatu gaitu. Abenduaren 20ra arte egongo da.
- Zero Zabor taldeak **“Trashed” filma** eskainiko du Kultur Etxean, abenduaren 17an, arratsaldeko 19:00etan. Jeremy Irons da protagonista.

¹ Datu horiek egindako pisaketetan oinarritzen dira. Aurreko pisaketa Legazpin hondakinak biltzeko sistema berria martxan jarri aurretik egin zen –2012ko otsailean– eta azkenekoa orain egin da sistema hori martxan jarri eta gero; datuak, beraz, konpara daitezkeen datuak dira.

Jasota geratzen da!

2. Udal obra-lantaldeak Ekoscan ingurumen arloko ikuskaritza gainditu du.

Berri garrantzitsua eta ona da, 2013an ingurumen arloan hartu diren neurriei esker, ondokoak lortu direlako...

- Herri argiterian eraginkortasuna hobetu da eta horrek 42.600 kW aurreztea ekarri du. Dirutan, 2.100,00 € aurreztu dira.
- Inausketa-hondarrak eramateko erabiltzen zen erregaia murriztu da, hondar horiek txikitzeko makina erosi delako. Horrek, urtean 14.800,00 € aurreztea ekarriko du.
- "Baietz txukun mantendu" kanpainarekin jarraitu da.

Zorionak!

Datorren asteazkenean Udala izango da ikuskaritza gainditu beharko duena... Zorte on!



Gai honekin bukatzeko, tailerren parte hartu duen pertsona baten eskaera jasotzen dugu. Hauxe da: **Kale Nagusian, behealdean, paperontziak jartzea.** Kepa Urzelaik Udalak paperontzi horiek jartzeko leku egokia zein izan daitekeen aztertzen ari dela erantzun du.

3. Arrandegietan etxetik ekarritako ontziak erabiltzeko kanpaina berri martxan

Ekimen hau aurrekoa gogora ekartzeko eta iaz egindako kanpainaren jarraipena izango da eta abenduan zehar egingo da.

INGURUMENA ZAINDU
HONDAKIN GUTXIAGO SORTU DEZAGUNI!
PROTEGE EL MEDIO AMBIENTE
¡GENEREMOS MENOS RESIDUOS!

LEGAZPIKO UDALA

kutxa SASIETA BANCAMUNTXETA

EKARRI EZAZU ZURE ONTZIA ARRANDEGIRA ETA IRABAZI

50€-KO EROSKETA-SARIA

TRAKE TU PROPIO RECIPIENTE A LA PESCADERIA Y PODRÁS GANAR UNA COMPRA DE 50€

EROSKI CENTER, MAITE, ODRIOZOLA, VICEN KALE NAGUSIA, VICEN LAUBIDE

Gaurko gai nagusia: mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko lehentasunezko jarduerak

Urte hasieran definitu genituen lehentasunezko jarduerak, nola daude?

Banan-banan, joan den 2013ko urtarrileko tailerretan Agenda 21eko Foroak lehentasunezko zatitza zituen proiektuen gaur egungo egoera berrikusi dugu:

1. Santikutz kalea ("Serenako" aldapa): eskailerak eta dauden oztopo arkitektonikoak kendu, Eroskiko espaloia egokitu eta oinezkoen bi pasabideetan segurtasuna hobetu.
2. Aizkorri kalea 2-16 (udaletxearen parean) oinezkoen lehentasuna emateko: Garagunetik Apatxora doan galtzada igo baina espaloia zabaltzea eta lurpeko azpiegiturak berritzea lehenetsiz.
3. Nafarroa kalea oinezkoentzako egokitu, Gipuzkoako Urak enpresak bertan egingo dituen egin beharreko hobekuntza-lanak aprobetxatuz.
4. Laubide eremuan jardun, errotonda barne.
5. Aizkorri kalea 20-26, ibilgailuen abiadura murrizteko eta horrek dakarren arriskua saihesteko.

1. Santikutz kalea

- Urte hasieran egin zen proposamenari dagokionez –eskailerak kendu, espaloia egokitu...-, Udalak proiektua aldatzea eta egokitzea erabaki du, eremu guztian irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin².
- Proiektu berriaren aurrekontua 234.000,00 €koa da –hasierakoa baino gehiago-.
- 2014an burutuko dira lanak, Nafarroa kalekoak bukatu eta gero.



² Proiektu hau zehatzago azaldu da aktaren hurrengo atalean.

2. Aizkorri kalea 2-16

- Eremu honetan jarduteko bi aukera aurkeztu ziren – espaloia zabaldu edo maila berean egongo den plataforma sortu- eta azkenaren alde egitea erabaki da: espazio osoa maila berera igoko da, oinezkoentzako espazio zabalagoak eta atseginagoak sortuz.
- Gainera, jarduketa honetan kolektorea aldatuko da, Gipuzkoako Urak enpresarekin elkar lanean eta lankidetzan.
- Proiektuaren gutxi gorabeherako aurrekontua: 500.000,00 €.
- 2014ko bigarren sei hilabetekoan egitea aurreikusi da, Santikutz kaleko lanak bukatu eta gero.



3. Nafarroa kalea oinezkoentzako egokitu

- Proiektu hau martxan dago eta kale osoa berrituko da 2 fasetan.
- 2. Fasean autobus geralekua zabaltzea aurreikusi da, errotondan ematen diren arazoak saihesteko.
- Aurrekontuei dagokienez, lehenengo fasearen kostua –martxan dagoena- 400.000,00 €koa da eta bigarrenarena, 200.000,00 €koa.
- Udal gobernu taldearen asmoa, Nafarroa kalea oinezkoentzako egokitu ondoren Kale Nagusian jarraipena izatea da. Edozelan ere, eguna iristen denean, zehatzago aztertuko da gaia eta ikuspegi desberdinetatik –oinezkoa, autoa, aparkalekuen beharra...-.



4. Laubide azua

- Egingo diren lanak 2014an egingo dira eta horien helburua, bertako eremua antolatzea da; oinezkoen nahiz ibilgailuen onura bilatzen da.
- Horretarako, Agenda 21eko Foroaren 2014ko lehenengo bi tailerrak –urtarrilaren 16koa eta otsailaren 27koa– gai hori lantzeko erabiliko ditugu; tailer irekiak izango dira eta bereziki gonbidatuko dira bertako bizilagunak. Bilera Arantzazuko haurreskolan egingo da.
- OHARRA: taldeak tailer horietan autobus geralekuaren antolaketa aztertu behar dela esan du, orain dagoen moduan arriskutsua delako.



5. Aizkorri kalea 20-26 (Txorroneako bidegurutzea)

- Lan hauek aurrerago egiteko utzi dira, aurten gaia aztertu delako eta bertan zerbait egitea oso zaila delako.



Martxan daude beste jarduketak batzuk

Agenda 21eko Foroak ezarritako lehentasunezko 5 jarduketak horiez gain, Mugikortasun Iraunkorreko Planean sartuta dauden eta garrantzitsuak diren beste bi jarduketak daude. Honako hauek dira:

Bidegorria Urola kalean

- Proiektu hori Gipuzkoako Foru Aldundia ari da egiten.
- Aurrekontua: 96.000,00 €.
- OHARRA:** taldeak bidegorri zati hori ezin ote zen errekaren parean egin galdetu du. Kepa Urzelaik hori gaur egun ezinezkoa dela erantzun du eta hainbat arrazoi daude horretarako: erreka ondoko lurra jabe pribatuenak dira eta erabiltzen ari dira, bidegorria erabiltzen dutenek hor atzealdean ez lirateke hain seguru sentituko, ... Gainera, orain egiten ari den lekuan ondo dagoela eta oinezkoentzako ere egokia dela uste du.



Urola Kaleko errotonda


- Errotonda honekin Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasotako antolamendu batzuk beteko dira.
- Obra hori Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du eta lanak 2014ko maiatza edo ekainean hasiko direla aurreikusten da, Legazpiko jaien ondoren.



Santikutz kalea –“Serenako” aldapa– berritzeko proposamena. Zertan aldatu da hasierako ideia?

Azkenik, Santikutz kalea berritzeko proiektuari heldu diogu, izan ere proiektu hori aldatu egin da eta ez da hasieran proposatu zena –batik bat, ibilgailuen mugikortasunaren noranzkoari dagokionez–.


Proposamena azaldu eta kontrastatu da eta, ondoren, Foroak oniritzia eman dio proposatutakoari. Hauexek dira proposamenaren giltzarriak:



Proposamen horrek, bestalde, Mugikortasun Iraunkorreko Planean jasotako zirkulazioaren noranzkoetan eragiten du.

- “Serenako” aldapan mantendu egiten da noranzkoa (gorantz); aldiz, Mugikortasun Planean kontrako noranzkoa proposatu zen (beherantz).
- Aldaketa horrek, industrialdean egingo den errotonda berriak ekarriko dituen aldaketak konpentsatzen ditu; horrela, errotonda egin eta gero, Santikutz kalea noranzko bakarrekoa izango da eta Pioko aldapak bi noranzko izango ditu.

Irudien bidez adierazita, honela geratuko da Mugikortasun Iraunkorreko Plana, Santikutz kalea berriro ondoren eta industrialdeko errotonda egin eta gero.



Agenda 21eko Foroak oso ondo baloratu du trafiko-antolaketa berria.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Gaurkoz amaitu dugu eta ... aurtengoz ere bai!

Eta lan egin, partekatu, eztabaidatu, eraiki,... dugulako irudipenarekin bukatzen dugu. Hori baino gehiago, jarraitzeko gogoarekin eta, ahal bada, hobeto egiteko asmoarekin geratzen gara.

2013an Agenda 21eko Foroarekin egindako ibilbidetik, zer da mantendu eta 2014ra eramán behar duguna? Eta zer egin dezakegu desberdin?

Iritsiko zaigu erantzunen bat, eta urte berriari gogotsu eta indarrez beterik helduko diogu.

Mila esker elkarrekin partekatu dugun eta zuei
esker ikasi dugun guztiarengatik.

Zorionak eta Urte Berri On!